




ESKULTURASTEIA

ESKULTURA ETA ESKU-HARTZE ARTISTIKOAREN II. SIMPOSIUMA
II. SIMPOSIUM DE ESCULTURA E INTERVENCIÓN ARTÍSTICA

TOLOSA 2014



Ibai Iriarte

Alkatea
Alcalde

Aurtengo Eskulturastea, bigarrena, berezia izango da, lehen edizioan buru belarri lanean izan genituen bi lagunek ihes egin diguteko, Iñaki Epeldek eta Nestor Basterretxeak. Aurtengoa, beraz, Iñakiren eta Nestorren omenezko Eskulturastea izango da beren obra eta batez ere bere izanaren alde humanoa goraiatzekoak. Kolore biziz margotzen zuen pertsona osoa, langile fin eta lagunak laguna beti laguntzeko prest zegoena Iñaki. Nestor, arte modernoa eta euskal izanaren sustriak bateratzen zituen lagun handia. Omenaldirik hoberena beraiek hasitako bideari kimu berriak ereitea delako, jarrai dezagun eskultura eta artearen zabalkuntzan lanean, egungo kimuak enbor eta sustrai sendoko haritz bilakatu daitezten.

Vuelve Eskulturastea, la segunda edición, una edición especial porque nos va a faltar Iñaki Epelde y Nestor Basterretxea, amigos que dedicaron toda su alma a la primera. Este año, pues, va a ser una Eskulturastea de homenaje a Iñaki y Néstor, dedicada a su obra y, especialmente, a su faceta humana. Iñaki fue una gran persona que pintaba con colores vivos, un gran trabajador y aún mejor amigo de sus amigos, siempre dispuesto a ayudar a todos. Néstor un gran amigo que fusionó el arte moderno con las raíces de la identidad vasca. Puesto que el mejor homenaje es seguir sembrando su semilla, sigamos trabajando en la difusión de de la escultura y las demás artes, para que los brotes de ahora devengan robles robustos de raíces profundas.



Nisa Goiburu

CIT-TEEko
Eskultura
Batzordea
Comision de
Esculturas del CIT

Eskulturastearen bigarren edizioan gaude jada. Hastea, egituratzea, zimendu onak eta gogo bizia jartzea izan zen zailena, Tolosako herritarrentzat zerbait positiboa egin nahi izateko hezkuntza eremuan. Hori guztia lehen Eskulturastean egin genuen jada.

Tolosar askoren aldetik izan genuen laguntza, batez ere ikastetxeena, ez dugu eskertu gabe utzi nahi Eskulturastearen bigarren edizio honetan. Simposio honen helburu nagusiena etorkizuneko gizon eta emakumeei zuzendua dago, hau da, gaur egungo haur eta gazteei. Informazioz gainezka daudela, korrante berriak beste parametro batzuetatik zuzentzen direla badakigu, baina gu pertsona gizatiarrarengan sinisten dugu eta kulturaren eta artearen garrantziaz jakitun gara. Arteak gure sentimendurekin elkartzen gaituen zirrarak ehuntzen du.

Dena dago mugimenduan! Baina artea da denboran zehar bizirik irauten duena. Aurten, biritzea egokitzen zaigun garaian, une dardaratira, baina halere sortzailera, egokitzen gara, gure ardatzean jarraituz, alaitasunez lortzeko gure helburua.

Deialdi hau berezia da, Iñaki Epelderi omenaldia egingo diogu. Herriko arte mugimendu guztiaren aitzindari handietako bat izan zen. Edozein eskaera artistikoren aurrean prest egoten zen, neska eta mutilekin artea lantzea eta haiei artea gerturatzea gustatzen zitzaion. Dena eta beti, parte hartzen zuen gauza guztietan, naturaltasunez eta ezaugarritzat zuen umiltasunez egiten zuen.

Ilusio handiz prestatu dugu egitaraua, artista eta teorikoen hitzarekin artea ezagutzeko gure jakinmina asetu ahal izateko, mundu zail baina interesgarri honetan murgil gaitzaten, norberak bere kidetasunak bilatu eta aurkitzeko aukera izan dezan. Oraingo honetan ere, egitarau berezia eta bereziki ikasleei zuzendutakoa prestatu dugu. Beraiek egingo duten obra ondare gisa geldituko da Tolosako herriarentzat.

Parte hartzera gonbidatzen zaituztegu eta aurretik zuen esku-hartzea eta laguntza eskertu nahi dizuegu.

Estamos ya en esta segunda edición de Eskulturastea. Lo difícil fue comenzar, estructurar, poner unos buenos cimientos y mucho entusiasmo en querer hacer algo positivo para la ciudadanía de Tolosa en el ámbito educacional. Todo esto ya lo hicimos en el primer Eskulturastea.

En esta segunda edición no queremos dejar de agradecer la buena colaboración y apoyo que tuvimos de parte de muchos tolosanos-as y sobre todo a la buena participación de los colegios. El principal objetivo de este simposio de Eskulturastea, va dirigido a los hombres y mujeres del futuro, que son los niños-as y jóvenes de hoy. Sabemos que estamos bombardeados de información, que las nuevas corrientes se rigen por otros parámetros, pero nosotros, si creemos en la persona humana y somos conscientes de la importancia de la cultura y del arte. El arte está tejido por la emoción que nos une con nuestro propio sentimiento.

¡Todo está en movimiento! Pero, es el arte lo que pervive a lo largo de los tiempos. Este año en este tiempo que nos toca vivir, nos adaptamos al momento convulso, pero no menos creativo siguiendo en nuestro eje, para alcanzar con alegría nuestro objetivo.

Esta convocatoria es especial, rendiremos un homenaje a Iñaki Epelde. Iñaki fue uno de los grandes precursores en todo el movimiento artístico del pueblo. Se prestaba siempre solícito ante cualquier requerimiento artístico, le gustaba mucho acercarse y trabajar el arte con los niños y niñas. Todo y siempre lo hacía con la naturalidad y la humildad que le caracterizaba en todo lo que colaboraba.

Hemos preparado un programa con mucha ilusión en el que podamos satisfacer nuestra curiosidad de conocimiento del arte con la palabra de artistas y teóricos de la materia, que nos introduzcan en este difícil pero interesante mundo, donde cada uno pueda buscar y encontrar sus propias afinidades. Este vez también preparamos un programa especialmente y especial dedicado a los alumnos-as. La obra que ellos realicen es la obra que permanecerá como legado al pueblo de Tolosa.

Os animamos a participar y agradecemos de ante mano vuestra participación y colaboración.

Elena Basagoitia

CIT-TEEko lehendakaria
Presidenta del CIT

Eskulturasteko bigarren ediziorako prestatzen ari gara, edizio triste bat Iñaki falta zaigulako. Iñaki Epelde TEEko Eskulturen Batzordeko partaide izan zen eta bere hastapenetik, oinarritzko zutabe bat izan zen, horregatik umezurtz sentitzen gara. Faltan botatzen dugu Iñaki, artista botatzen dugu faltan, baina batez ere gizakia botatzen dugu faltan, EZ hitza ezagutzen ez zuen lagun eskuzabala, eskaera egiten zion edonorekin elkarlanean aritzeko prest zegoena.

Horregatik Iñaki, omenaldi umil hau egin nahi, behar dizugu zure falta sentitu eta ezagutu zintugunon bihotzetik egina. Zure falta ordea, fisikoa da baina ez emozionala, gure oroitzapenean betirako izango zaitugulako.

Agur hau idaztearekin batera, gure lagun eta artista zen Nestor Basterretxearen heriotzaren berri izaten dugu. Tristura handitzen doa, Tolosarekin lotura berezia izan zuten bi artistek utzi gaituzte, “nire sentimenduekin oso bateratua dagoen herria” esan zuen Nestorrek behin. Iñaki eta Nestor, Nestor eta Iñaki pasio berberari atxikita bizi izan ziren, ARTEA bere esanahiaren zentzu zabalenean. Biak ziren eskuzabal, biak ziren lagun. Ziur dauden lekuan bere pasioari buruz hizketan jarraituko dutela.

Eskerrik asko Iñaki, mila esker Nestor zuen ondare artistikoagatik, baina batez ere esker mila zuen adiskidetasunagatik. Maite zaituztegu

Nos preparamos para la segunda edición de Eskulturastea, una edición triste porque nos falta Iñaki. Iñaki Epelde formó parte de la Comisión de Esculturas del CIT desde sus inicios siendo un pilar fundamental de la misma, por lo que nos sentimos un poco huérfanos. Te echamos de menos Iñaki, echamos de menos al artista, pero sobre todo echamos de menos al hombre, al amigo generoso que desconocía la palabra NO, siempre dispuesto a colaborar con todo aquel que se lo pedía.

Por eso Iñaki queremos, debemos, rendirle este humilde homenaje hecho desde el corazón de los que te conocimos y sentimos tu ausencia, una ausencia física, porque en el recuerdo siempre estarás con nosotros.

Al escribir este breve saludo nos llega la noticia del fallecimiento de otro gran artista y amigo Néstor Basterretxea, la tristeza aumenta, nos han dejado dos grandes artistas que tuvieron una unión especial con el pueblo de Tolosa como bandera, “una ciudad muy hermanada con mis sentimientos”, como en su día declarara Néstor.

Néstor e Iñaki convivieron aferrados a la misma pasión, el ARTE en el más amplio sentido de la palabra. Ambos eran generosos, ambos eran amigos. Seguro que allá donde estén seguirán hablando de su gran pasión.

Gracias Iñaki, gracias Néstor por vuestro legado artístico, pero sobre todo gracias por vuestra amistad. Os queremos.

Joxemari Iturralde

Idazlea
Escritor

MARTXAN DAGOEN PROIEKTUA

Arteak, munduaren ikuspegi estetikoak baita, jakintza eta esperientzia izan behar du, eta izan, halaxe da. Da, baita ere, eguneroko bizitzan parte hartzeko modu zuzen bat. Artea gauza asko dira; artetik, ordea, ulermena eta errespetua interesaten zaizkit, zeren jakintzari eta askatasunari loturik baitaude.

Orain urte batzuk pertsona gogotsu, sortzaile eta berritzaile batzuk elkartziren Tolosan, Herrian egon zitekeen arte-kezka oro bultzatzeko asmoz. Beste proiektu batzuen artean sortu zen hainbeste fruitu eman dituen Eskulturastea.

Arteak, jakintza eta jakinmina ere baita, eta denboran eta espazioan lehenagokoak diren jakintza estetiko desberdinak nahasteko gaitasuna baitauka, urrutiko zein hurbileko beste iturrietatik hartutako jakintzak bildu eta metatzan ditu. Konfuziok, ekialdeko jakintsu eta filosofo handiak, esan zuen:

- “Esadazu zerbait, eta ahaztu egingo dut. Erakutsidazu zerbait, eta gogoan edukiko dut. Zerbaitetan partaide egin nazazu, eta ikasi egingo dut.”

Tolosako jendeari, Eskulturastea bezalako proiektuen inguruan, ez zaio inporta beste kultura batzuetatik datorren jakintza hori jaso eta nahastea. Hargatik, guk, horrelako proiektuetan parte hartu nahi dugun tolosarrok, egiten duguna da hori esan, erakutsi eta jakinarazi interesa erakusten duten guztiei. Zeren niri esango balidate hitz bakar batean laburtzeko Tolosan egiten den eta

orain arte egin den lan guztia, hitz hau aukeratuko nuke: “partaidetza”.

Proiektu hau da parte hartzeko. Da Artea kalean, da denon eta denontzako Artea. Badu proiektu honek osagai bereziki pedagogiko bat. Umeak, gazteak, ikastetxeak, ikastolak... sartu egiten dira eginkizun honetan eta gustura hartzen dute parte sorkuntza artistikoan.

Etenik ez duen proiektu bat da, gelditu ezin daitekeena, batzuegandik besteengana igarotzen dena eta igaroko dena. Hausten ez den kate bat izango da, segida edukiko duena. Tolosarrek hala nahi dute.

Gogora datorkit orain harako ekialdeko maisu Nesrudinek *Babes on bat* izeneko alegian eskualdatu zigun irakaspén hura:

Egun batez, Nesrudin ogi-apurrak jartzen ari zen bere etxearen inguruan. Paseatzaile bat geratu eta galdetu zion zer zela eta ari zen gauza bitxi hura egiten.

- Ni tigreengandik babesteko da-
erantzun zion Nasrudin.

- Hemen tigrerik ez dago, ordea!

- Bai –esan zuen Nasrudinek–. Ikusten
duzenez, balio du honek.

Guri ere, tolosarroi, sormenezko eginkizun honetan sartuta gauden guztioi, geure proiektu artistikoak funtzionatzen digu, balio digu, egoki zaigu.

Eta horrexegatik segituko du aurrera. Segituko du denon inplikazioz, partaidetzaz eta lankidetzaz. Horixe da gure babes on eta handia.

PROYECTO EN MARCHA

El Arte, como visión estética del mundo, tiene que ser y es conocimiento y experiencia. Es, también, una forma directa de participar en la vida diaria. El arte es muchas cosas, pero del arte me interesa la comprensión y el respeto, porque van unidos al conocimiento y a la libertad.

Hace ya algunos años un grupo de gente inquieta, creativa, innovadora se juntó en Tolosa para relanzar artísticamente toda la inquietud que pudiera haber en la Villa. Entre otros proyectos se fraguó la *Eskulturastea*, que tantos frutos ha dado ya.

El Arte, como también es saber y sed de saber, y capacidad de amalgamar diversos conocimientos estéticos anteriores en el tiempo y en el espacio, en su gran caleidoscopio cultural, hace acopio de saberes de otras fuentes, lejanas o próximas. Dijo el gran sabio y filósofo oriental Confucio:

- “Dime algo, y lo olvidaré. Muéstrame algo, y lo recordaré. Hazme partícipe de algo, y lo aprenderé”.

A la gente de Tolosa, alrededor de proyectos como la *Eskulturastea*, no le importa recoger y amalgamar esa sabiduría que llega de otras culturas. Así, nosotros, los de Tolosa que nos queremos implicar en tales proyectos, lo decimos, lo mostramos y lo hacemos partícipe a todos aquellos que se quieran interesar. Porque si me dijeran a mí que resumiese en una sola palabra toda la labor que se realiza y se ha realizado hasta ahora en Tolosa, escogería la palabra “participación”.

Este proyecto es participativo. Es Arte en la calle, es Arte de todos y para todos. Tiene este proyecto un componente eminentemente pedagógico. Niños, jóvenes, colegios, ikastolas... se enganchan también en este quehacer y participan gustosamente en la creación artística.

Es un proyecto que no cesa, que no puede parar, que va pasando e irá pasando de unos a otros. Será una cadena que no se rompe, que tendrá continuación. La gente de Tolosa así lo quiere.

Me viene ahora a la memoria aquella enseñanza que el maestro oriental Nesrudin nos transmitió en el apólogo denominado *Una buena protección*:

Nasrudin estaba un día rodeando su casa con un círculo de migajas de pan. Un paseante se detuvo y le preguntó la razón de aquel singular proceder.

- Es para protegerme de los tigres – contestó Nasrudin.


- ¡Pero si aquí no hay tigres!

- Sí – dijo Nasrudin -. Ya ves que esto funciona.


A nosotros, a la gente de Tolosa, a todos los implicados en esta labor creativa, nuestro proyecto artístico, tal y como ha sido creado, también nos funciona, nos sirve, nos vale.

Y por eso, continuará. Continuará con la implicación, con la participación y con la colaboración de todos. Esa es nuestra buena y gran protección.

ESKULTURASTEA 2014



Eskulturastea 2014 berrikuntza garrantzitsuekin eta era guztietako ekitaldiz betetako egitarau batekin aurkezten da, abangoardiako artean zentratuta denak, bere zabalkundearen, gazteenak ohitzearen, eta noski, Iñaki Epelderen obran. Hona hemen **Eskulturastea 2014** izango dena.



Eskulturastea 2014 se presenta con importantes novedades y un programa repleto de actividades de todo tipo, todas centradas en el arte de vanguardia, su difusión, su familiarización con los más jóvenes y, por supuesto, en la obra de Iñaki Epelde. He aquí el programa de lo que será **Eskulturastea 2014**.

EGITARAU PROGRAMA

irailak

19

septiembre

OSTIRALA_VIERNES

Topic: 18:30 h.

Diseinuak / Diseños

**Palacio Aramburu
Jauregia: 19:30 h.**

Pintura

“Afizio, ofizio, baina batez ere debozio”

Iñaki Epelderen erakusketen inaugurazioa. Azaroaren 8 arte egongo dira ikusgai.

Inauguración de las exposiciones de Iñaki Epelde. Permanecerán abiertas hasta el 8 de noviembre.

urriak

07

octubre

ASTEARTEA
MARTES

**Zezen Plaza
Plaza de Toros**

10:00 h.

Tolosaldeko ikasleen artelanak Iñaki Epelderen omenez. DBHko ikasleek 360x180 cm-ko hormirudia (bakoitzak 20x20 cm-ko laukitxoak margotuz) egingo dute korten altzairuan, “Betidanik” izenburupean. Berazubin jarriko da aurrerago, Iñaki bizitu zen auzoa. Lehen Hezkuntzako ikasleek berriz, kalean jartzeko artelana burutuko dute.

Trabajos artísticos de los alumnos-as de Tolosaldea en homenaje a Iñaki Epelde. Los alumnos-as de ESO realizarán un mural de 360x180 cm en acero corten (cada alumno pintará una cuadrícula de 20x20 cm) titulada “Betidanik-Desde siempre”. Esta obra se colocará posteriormente en Berazubi, barrio donde residió Iñaki. Por otra parte, los alumnos de Primaria realizarán un trabajo de arte urbano.

urriak

08

octubre

ASTEAZKENA
MIÉRCOLES

Topic: 19:30 h.

Mahai ingurua - **Mesa redonda**
“Puntos de encuentro o desencuentro”

Parte-hartzaileak - **Participantes:**
Koldobika Jauregi eta Naia del Castillo

Moderatzailea - **Moderador:**
Xabier Sáenz de Gorbea

urriak

09

octubre

OSTEGUNA
JUEVES

Euskal Herria

**Plaza
19:30 h.**

**Topic
20:00 h.**

Bere lagunen omenaldia Iñaki Epelderi artearen alor desberdinen bidez.

Homenaje a Iñaki Epelde a través de distintas disciplinas artísticas por parte de sus compañeros

Eskultura iragankorra - **Eskultura efímera:**
Jose Ramón Anda, Koldobika Jauregi, Ricardo Ugarte, Nisa Goiburu, Guillermo Olmo

Poesia errezitaldia - **Recital poesía:**
Joxe Mari Iturralde eta Julia Otxoa

Musika - **Música:**
Miguel Zeberio eta Et Incarnatus Orkestra

Aurkezlea - Presentadora:
Edurne Ormazabal

urriak

30

octubre

OSTEGUNA
JUEVES

**Sala Boulevard
- Donostia -**

Iñaki Epelde eta Nisa Goibururen erakusketaren irekiera. Inaugurazioa azaroaren 4ean izango da, 19:30ean. Abenduaren 5a bitarte egongo da ikusgai.

Apertura de la exposición conjunta de Iñaki Epelde y Nisa Goiburu. La inauguración tendrá lugar el 4 de noviembre a las 19:30. Permanecerá abierta hasta el 5 de diciembre.

azaroak

07

noviembre

OSTIRALA
VIERNES

**Topic
19:30 h.**

Hitzaldia - **Conferencia**
“Éxito (lo incontable)”.

Hizlaria - **Conferenciante:** Juan Luis Moraza
Aurkezlea - Presentador: Santi Eraso

Arrakastaren fantasiak artetik artikulatzen dituzten esanahi pertsonal eta sozialei buruzko hausnarketa; fantasia horien botereaz; kontaezinaz, elkarrekin, karanbolen, itxuraldatzeen eta uneen benetakoa historia, arrakasta onartzen dutenak kulturaz gaindi. Beste era batera esanez, arrakasta kontaezin honek publikoa dena eratzten du, sormen sozialaren ebidentzia zentzudun gisa, publikoaren esanahi bikoitzean, agentea eta emaitza.

Una reflexión sobre las significaciones personales y sociales que desde el arte, articulan las fantasías del éxito; sobre el poder de esas fantasías; y sobre lo incontable, esa historia real de interacciones, de carambolas, transformaciones y momentos, de iluminaciones y vivencias, que reconocen el éxito independientemente de la cultura. Dicho de otro modo, este éxito incontable instituye lo público, en tanto circunspeta evidencia de la creación social, en el doble sentido en el que lo público es agente y resultado.

IÑAKI EPELDE



Esta segunda edición de **Eskulturastea** nace huérfana. Iñaki Epelde no estará entre nosotros. Nos faltará su entrega, su pasión, su talento para crear arte y entenderlo, su compromiso con Tolosa y su idealismo por un mundo mejor. Intentaremos suplir lo mejor posible todo ello, pero nos será imposible llenar el hueco de su presencia. Él era uno de esos pocos imprescindibles que consiguen que veamos el mundo con más optimismo del que debiéramos.

Eskulturastea existe gracias a gente como Iñaki Epelde. Por ello, él y su obra constituirán uno de los ejes fundamentales de esta segunda edición.

Eskulturastearen bigarren edizio hau umezurtz jai da. Iñaki Epelde ez da gure artean izango. Bere gorputz eta ariman aritzea, irrika, artea sortzeko eta ulertzeko talentua, Tolosarekiko bere konpromisoa eta mundu hobeaz lortzeko idealismoa faltako zaizkigu. Hori guztia ahalik eta ondoen ordezkatzeko saiatuko gara, baina bere presentziaren hutsunea betetzea ezinezkoa egingo zaigu. Mundua behar genukeen baino baikortasun handiagoz ikustea lortzen zuen behar-beharrezko gutxi horietakoa zen bera. Iñaki bezalako jendeari esker dago Eskulturastea. Horregatik, bera eta bere obra bigarren edizio honetako ardatz funtsezkoetako bat izango dira.

Juan Garmendia

Etnografo eta antropologoa
Etnógrafo y antropólogo

Espero bagenuen ere, oso atsekabe handia eragin zigun Iñaki Epelde Mundiñanoren galerak. Iñaki 2013ko martxoan hil zen, berak adore handiz borrokatutako gaitz luze eta nekagarri baten ondorioz.

Lagun tolosar honek utzi digun oroitzapena da oso pertsona bihozbera zela, oso gizon umil eta eskuzabala, lagunaren edo ezagunaren eskariei nekez uko egiten ziena, beraren eguneroko lanetan eragozpenak sortuagatik ere.

Mundu honetan, lehia eta besteen gainean nabarmentzeko grina nagusi diren mundu honetan, Iñaki berezia zen zeren berak bizitza honetaz zuen ikuspegia zen oso bestelakoa, irekia eta laguntzazkoa, eta horregatik berarentzat ez zegoen lehiakiderik baizik eta denak lankideak ziren. Ondorio honetara iritsi nintzen inoiz edo behin antzeman nizkion keinu batzuk ikusita.

Gizon sortzailea, artista-arima zuena, bere atzetik lan zabal eta interesgarria utzi du margolari eta marrazkilari gisa. Horixe izan zen, izan ere, haren pasio handia, eta pasio horretara eman zen erabat eta talentu handiz.

Tolosak Inaki Epeldereren partaidetza edukitzeko zoria izan du mota guztietako kultur jardueretan, eta jarduera horietan, hain zuzen ere, hasi eta hazi zen gure arteko adiskidetasuna. Aldizka etortzen zitzaidan etxera bisitan hitz-aspertu luze eta aberasgarriak konpartitzera -berdin euskaraz edo erdaraz, biak ondo zekizkien eta-; hizketa haiek, gainera, beti ziren niretzat eduki pedagogikoko handikoak.

Gogoan daukat ezen, egun batez, beste lagun batzuekin batera, hizketaldi luze bat izan genuela artista ospetsu baten etxean. Iñaki ikusi zuenean bilera oso luze zihoala, begirunez esan zidan: "Juanito, nekatuta egongo zara, noski". Baietz erantzun bainion, proposatu zidan bere automobilean ekartzea Tolosara non, egia esateko, hizketan jarraitu genuen tarte luze batez.

Hona hemen nire oroitzapena eta gorazarrea Inaki Epelde Mundinano tolosar eta lagunari.

No por esperada nos resultó menos conmovedora la pérdida de Iñaki Epelde Mundiñano, fallecido en marzo de 2013 como consecuencia de una larga y penosa enfermedad contra la que combatió con gran entereza.

Este tolosarra y amigo nos deja el recuerdo de un ser de gran calidad humana, un hombre humilde y generoso a quien le era difícil negarse a atender una petición de amigos o de conocidos por más que ello pudiera alterar su quehacer cotidiano.

En este mundo dominado por la competición y por el afán individual por sobresalir por encima de los demás, Iñaki destacaba por tener una visión de la vida completamente distinta, abierta y cooperativa, de modo que para él no había competidores sino que todos eran colegas de colaboración. A esa conclusión llegué en la observación de gestos suyos de los que pude ser testigo en alguna ocasión.

Hombre creativo, con alma de artista, deja tras de sí una obra amplia e interesante como pintor y como dibujante. Esta fue su gran pasión, a la que se dedicó con entrega y talento.

Tolosa ha podido contar con la implicación de Iñaki Epelde en toda clase de actividades culturales, y fue precisamente en esas circunstancias como trenzamos nuestra amistad. Periódicamente me visitaba en casa para compartir largas y ricas conversaciones, indistintamente en euskera y castellano pues ambas dominaba con igual fluidez, charlas de contenido que siempre me resultaba pedagógico.

Recuerdo que, cierto día, junto con otras personas compartimos una larga tertulia en casa de un relevante artista. Al observar Iñaki que el encuentro se iba alargando mucho, tuvo la deferencia de preguntarme: "Juanito, ¿estarás cansado?". Ante mi respuesta afirmativa se me ofreció a llevarme en su coche de vuelta hasta Tolosa, donde a decir verdad aún seguimos hablando un largo rato.

Quede aquí mi recuerdo y el homenaje e la memoria de Iñaki Epelde Mundiñano, tolosarra y amigo.

NESTOR BASTERRETxea

Eskultura 2014ko Amaiera Ekitaldia, epaimahaiko lehendakaria izan zen bera. Ekitaldi horretan, Nestorrek 50 urtetan zehar Tolosari, CIT-TEEren bidez, eman zion laguntza artistiko eta gizatiarrari onarpen omenaldia egin zitzaion

Acto de Clausura de Eskulturastea 2012, del que fue Presidente del Jurado. En dicho acto se realizó un homenaje de reconocimiento al apoyo tanto artístico como humano, que Nestor dispuso a Tolosa a través del CIT, durante más de 50 años.



NESTOR BASTERRETxea
IBAI IRIARTE TOLOSAKO
ALKATEAREKIN ETA ANTXON
ELOSEGUI, CIT-TEEREN
SORTZAILEA.

NESTOR BASTERRETxea
CON EL ALCALDE DE
TOLOSA, IBAI IRIARTE,
Y ANTXON ELOSEGUI,
FUNDADOR DEL CIT.



NESTOR ESKULTURASTEAREN
LEHENENGO EDIZIOKO EPAIMAHAIKO
GAINONTZEKO KIDEEKIN.

NESTOR JUNTO CON EL RESTO
DE LOS MIEMBROS DEL JURADO
DE LA PRIMERA EDICION DE
ESKULTURASTEIA.



BASTERRETXEAREN "GOLDEA"
ESKULTURA EGIN ZEN
GALDARATEGIAN.

EN LA CALDERERÍA DONDE SE
REALIZÓ LA ESCULTURA
"GOLDEA" DE BASTERRETXEIA.

Antolatzailea / Organiza:



TOLOSAKO EGINBIDE ETXEA
CENTRO DE INICIATIVAS DE TOLOSA

Babesleak / Patrocinadores:



EL DIARIO VASCO

Laguntzaileak / Colaboradores:

KUTXABANK / ET INCARNATUS Orkestra / Soc. SUKALDE Elkarteak / Soc. BERAZUBI Elkarteak /
Cartonajes LIMOUSIN / CALPARSORO Industrial / TINDU Margoak /
HIRUKIDE, LASKORAIN, SAMANIEGO, ORIXE, UZTURPE eta ANOETA Ikastetxeak